

HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2021



HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2021

Donostia, 2021eko martxoa

© Testuen egileak: Lore Agirrezabal, Intza Alkain
eta Saroa Bikandi

© Diseinua eta maketazioa: Maddi Orcajo

© Galtzagorri elkarteak
Zemoria kalea 25, behea
20013 Donostia
galtzagorri@galtzagorri.eus
www.galtzagorri.eus

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45
20500 Zarautz
L.G.: D 00218-2021

LIBURUEKIN MINTZATZEN

Galtzagorri elkarteak 30. urteurrena ospatu duen urte seinalatu honetan, sorreratik jarraitu nahi izan duen bidea berretsi du. Batetik, Euskal Haur eta Gazte Literatura ezagutaraztea; eta bestetik, haur zein gazteen irakurtzeko zaletasuna sustatu eta heziketa literarioa bermatzea. Liliana Colanzi idazleak aipatu bezala, “irakurri eta informazioa jasotzea da geroari aurre egiteko lehen pausoa”. Egun, inoiz ez bezala, haur eta gazteak datorkien bidez gozatzeko funtsezkoa litzateke irakurketara hurbiltzea. Hortaz, Galtzagorri bere galtzadatik jarraitzeko asmoa du.

Haur eta gazteak literaturara hurbiltzeko xede horretan, elkarteak indar berezia jarri izan du bitartekariak diren irakasle, liburuzain eta familiak trebatu eta literatur heziketa emateko zereginean. Izan ere, Gianni Rodari idazle ezagunak azpimarratzen zuen bezala, irakurketara zaletzeko modu bakarra irakurtzearen plazera kutsatzea da, eta hori, liburuak eta istorioak eskaintzeko giltza duenak soilik egin dezake. Horrexegatik jarri genituen abian 2018an *Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak*, eskoletako bitartekariari transmisio hori burutzeko klabeak eskaintzeaz gain, haiek ere Euskal HGLa deskubritu eta zaletu zitezen.

Aurten ere Galtzagorri elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura sailarekin lankidetzan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan lantegiak egiteko laugarren edizioa ipini du martxan. Era berean, tokiko udal bibliotekariak ere gonbidatzen dira lantegiak jasoko dituzten ikastetxeetara, bi esparru hauen arteko elkarlana sustatze aldera. Gida hau eskuartean baduzu, ziurrenik Galtzagorriko kideak zure eskolan izan direlako da.

Haur eta gazteentzako liburuen gidak aipaturiko egitasmoaren jarraibideak biltzen ditu. Hortaz, jarraian Euskal Haur eta Gazte Literaturan argitaratu diren 40 bat izenburu topatuko dituzu, liburu bakoitzarekin bitartekariarentzako esku-hartze proposamen bat jasotzearekin batera. Hartara, liburu hautaketa bat erraztu eta ikasleekin hauen lanketa egiteko tresnak jarri nahi ditugu zuon eskura.

Galtzagorri elkarteak urteak daramatza, bere Irakurketa Mintegiaren bidez, euskarazko argitalpenak irakurri, baloratu eta hautatze lanetan, eta aldi berean, urtero Galtzagorri bere kide eta adituren bati eskatzen dio *Ezinbestekoak* zerrenda osatzeko. Balorazio eta hautaketa hauetan oinarritutako liburu zerrendak osatzen du gida hau, hain zuzen. Beraz, bertan literatura kalitatea egotzi zaien liburuak topatuko dituzue: argitaratu berriak gehienak, gaurkotasuna galtzen ez duten klasikoren bat edo beste eta genero literario ezberdinekoak. Garrantzi berezia ematen diogu azken honi, fikzio molde ezberdinak ematea beti delako aberasgarria, bai heziketa literarioarako, baita irakurketara erakartzeko ere. Hortaz, gomendiozko adinkako sailkaketa batean, album ilustratuak, komikiak, eleberriak, ipuin liburuak, poesia liburuak edota fikzio digitala ere topatzeko aukera duzue. Batik bat euskal argitalpenek edo euskarazko itzulpenek osatzen badute zerrenda ere, lekutxo bat egin nahi izan diegu geure mugetatik kanpo sortu diren hainbat liburu edo aplikazio digital bereziri.

Galtzagorriko kideok zuen ikastetxera hurbiltzen ditugu gidako liburuak gurditxo batean. Aurreko edizioetan egin dugun bezalaxe liburuak zuen eskuartean uztearekin batera, liburuokin ikasleak irakurketara zaletzeko praktika eta dinamika proposamenak luzatzen dizkizuegu. Azken edizio honetan, ordea, lantegia aurrez ezagutzen zenuten ikastetxeekin, tailerrari jarraipena eman nahi izan diogu eta irakurzaletasunetik haratago joaz, ikasleekin lanketa

literario bat burutzeko oinarriak landu nahi izan ditugu. Horretarako, liburuak begirada literario eta artistiko batetik irakurtzen ikasteko eta literatura bera landu eta gozatzeko irakurgaien tripak erakustea izan da geure dinamika berriaren muina. Izan ere, T. Colomerrek dioen bezala “Literatur liburu on batek eskuzabala behar du izan, beti egongo baita zerbait gehiago kontatzeko prest”. Hortaz, guri dagokigunez, *Irakasleentzako Lantegietan* liburuen hizkuntza ikasi eta esateko dutena entzutea besterik ez zaigu geratzen. Hizkuntza berri bat ikastera animatzen?

Galtzagorri elkarte

Donostia, 2021eko martxoa

2 urtetik aurrera:

MUKI BAT TTAKA!	8
GRISELE	9
ZERA	10
ARRAUTZAN	11
THIS WAY, THAT WAY	12

4 urtetik aurrera:

HASERREA	13
AMETS GAIZTO NIRE ARMAIRUAN	14
MARI TXIKI SUPERMERKATUAN	15
BISITA	16
NIRE GORPUTZEAN BIZI NAIZ	17
ZIRIMIRIA	18
3 IPUIN AMAIEZIN	19

6 urtetik aurrera:

LORERIK GORRIENA	20
RAVELEN BOLEROA	21
EUSKAL HERRIETAKO LAMINEN IPUINAK	22
ISTORIOEN ZOOA	23
BURNIZKO POTOA	24
UXIO	25

8 urtetik aurrera:

1880TIK IREKIA	26
OILASKO HEGALAK	27
ATA PANK ETA ATE PUNKY	28
EZ APURATU	29

10 urtetik aurrera:

GAU BELTZA	30
ZAKARRUKO	31
GALTZAUNDI, GALTZAMOTZ ETA GALTZAJARIO	32

12 urtetik aurrera:

BUILDING STORIES	33
BABEL	34
BASOLATIK BERRI ONIK EZ	35
TANTAKA	36
ARRASTOA	37
BI TXANTXANGORRI HARITZ ADARREAN	38
TXOKOLATEGIA	39
ABERE BA: PALINDROMO ILUSTRATUEN PIZTEGIA	40
PEQUEÑO DICCIONARIO SENTIMENTAL	41

14 urtetik aurrera:

ANTZARA EGUNA	42
BEGIAK ZERUMUGAN	43
PORTUAK	44
FRANKESTEIN EFEKTUA	45
NAFARROAKO MARISKALA	46
DUMITRU BILUZIK!	47
PANPINA	48

LIBURU DIGITALAK:

HIDDEN FOLKS	50
FEED THE HEAD	51
CHUCHEL	52
ATOPIA RPG	53
GOROGOA	54



MUKI BAT, TTAKA!

Egilea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

El Embudo, 2020


ISBN: 9788412041859

136 orrialde

Album ilustratua

Umetan grazia handiz eta lotsa gutxiarekin, baina helduagotan ia ezkutuan egin ohi dugun zerbait da mukiak sudurretik ateratzea. Elena Odriozolak hori islatu du liburu honetan, adinak adin, mukiak ateratzeko joera nahigabeko eta geraezin hori. Horretarako, belaunaldi desberdinetako pertsonaiak irudikatu ditu, lelo tradizional bat haritzat hartuz eta urratsez urrats -eta orriz orri-mukia ateratzeko prozesu guztia ilustratuz. Gaztekeraz “*Yo tengo un moco / lo saco poco a poco...*” segida hartu du. Hori bera, Juan Kruz Igerabidek euskaraz eman du: “Muki bat ttaka / atera dut tiraka...”. Haurrentzat zein helduentzat hain ezaguna den jarduera zelebren hori naturaltasun osoz hartu eta literaturara ekarri jolaserako aitzakia bihurtu du Odriozolak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Kantatzeko liburua da. Bi eratarira irakurri/kantatu daiteke: poliki eta boz gora, edota eskuartean hartuta, azkar-azkar orriak pasatuz eta liburu animatu bilakatuaz. Kantua bera behin eta berriz errepikatzen denez, erritmo eta ahots aldaketekin jolastu daiteke, liburuako pertsonaia bakoitzari egokituz, adibidez. Irakurle helduagoekin irudia eta testuaren arteko harremanaz hitz egin daiteke eta giza bizitzaren lau zikloez hausnartu. Era berean, Elena Odriozolaren ilustrazio laminak deskargatu daitezke, hauek tamaina handiaz izan eta haiekin jolastu: <https://modernaselembudo.com/libros/muki-bat-ttaka/?v=2fb7284eba87>. Kantu herrikoi gehiagori gelan tartetxo bat eskaintzera ere anima gaitzake liburu honek.



GRISELE

Idazlea: Anke de Vries
Ilustratzailea: Willemien Min
Itzultzailea: Eva Linazasoro
Pamiela-Kalandraka, 2020
ISBN: 9788491721932
32 orrialde
Album ilustratua

Sagutxo gris bat da liburu honetako protagonista, bere azalaren kolorea gustuko ez duen sagutxoa. Hori dela eta, bere burua margotzen hasten da: lehenengo kolore batez, gero bestez... baina ingurukoek barre eta iseka egiten diote modu batera zein bestera agertu. Azkenean, ohartuko da bere horretan, den bezala, agertzeak eta bere burua onartzeak baino ez diola emango zoriona. Autoestimua eta adiskidetasunaz dihardu ipuinak. Lehen irakurleentzako alegia bat da Anke de Vries idazleak eta Willemien Min ilustratzaileak sortu duten hau: testu xehe eta zuzena, eta detaile gutxiko irudi handiak hondo zuriaren gainean.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu hau kontatzeko, paperezko txotxongiloak presta ditzakegu. Hainbat galdera egin ditzakegu: zer egiten duzue triste zaudetenean? Koloreek emozioak dauzkate? Grisele noiz sentitu da hobeto? Eta gu gure gorputza margotzen badugu zelan sentituko ginateteke? Auto irudiaren ideiarekin jarrai dezakegu, eta autorretratua sortzen jarri, bakoitzak zelan ikusten dugun gure burua, eta besteak zelan ikusten gaituen. Marrazketaren bidez, idazketaren bidez, hainbat diziplina erabil ditzakegu.




ZERA

Idazlea: Stéphane Servan
Ilustratzailea: Cécile Bonbon
Ikas, 2020
ISBN: 9782849632147
30 orrialde
Album ilustratua

Iritzi desberdinen arteko eztabaida pizteko, iritzia emateko, bestearena entzuteko eta barre pixka bat egiteko aukera polita eskaintzen du album ilustratu honek. Egun batean, laku handiaren ondoan, Bobo elefanteak zera topatuko du, gauza bitxi bat. Ondo pentsatuta, kapela bat dela erabakitzen du. Baina denak ez dira iritziz berekoak! Kiki aligatorioak uste du kapa bat dela, Zazak dio ardi bat dela, gona eder bat dela besteak... Ume bat biluzik etortzeak amaiera emango dio eztabaida bizi honi.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora kontatzeko albuma da, ondoren, ikasleen eskuetan utzi beharrekoa. Kontatzerakoan, animalia bakoitzari erreparatu, hots eta ahotsak eginez gozatu. Ondoren, egitura kateatuari jarraiki, zera hori (oihal bat) zer izan daitekeen asmatzera jolas gaitzke ikasleekin (alfonbra hegalaria, soineko, mamu...). Azkenik, collage teknika ezagutu eta landu dezakegu. Ikas pedagogia zerbitzuko entzunezko baliabideak hemen (batuaz entzun daiteke):

<http://ikas.eus/spip.php?rubrique1946&lang=eu>



ARRAUTZAN

Egilea: Emma Lidia Suillari
 Itzultzailea: Xabier Olarra
 Pamiela-Kalandraka, 2020
 ISBN: 9788491721963
 40 orrialde
 Album ilustratua

Etxeko txikienekin gozatzeko ederra da album ilustratu hau. Enigmatxo bat aurkitu behar da. Izan ere, hamabi arrautza ikusiko ditugu hasieran, denak desberdinak tamainaz, kolorez eta ehunduraz, eta bakoitzean sortzeko zorian den kume bat dago (txita, ahatea, dortoka, krokodiloa...), gainera, ikus daiteke orriz orri nola hazten ari den. Komeriak gero etorriko dira, arrautzak hautsi eta munduratzten direnean. Hemendik aurrera arreta handia jarri behar zaie irudiei, bertan baitago testua ulertzeko gakoa (album ilustratu onenetan bezala, testua eta ilustrazioa elkar elikatzen dira honetan ere). Istorioaren kontalaria nor den asmatu beharko du irakurleak, eta zergatik falta diren elementuak orrietan aurrera egin ahala. Liburu zoragarria da, umoretsua, zorrotza, transgresorea...

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu honen irakurketak dibulgazio liburuekin lotzeko aukera ematen digu, ikusteko, arakatzeko, benetako argazkietan zelakoak diren animalia desberdinen arrautzak, zenbat egun daude barruan errun arte, zeinek erruten dituen arinago... datuen bilaketa jolas moduan presta dezakegu. Bestetik, istorioak kontatzen duen haritik tiraka *Coco y Pío* (Alexis Deacon. Ediciones Ekaré) liburuaren irakurketa proposa dezakegu, liburu batek beste batera eramaten gaituela erakutsiz, hauxe baita bitartekariaren lanetariko bat.




THIS WAY, THAT WAY

Egilea: Antonio Ladrillo
 TATE publishing, 2017
 ISBN: 9781849764513
 24 orrialde
 Jolas liburua - Pop up

Antonio Gonzalez artistak hogeitun urte baino gehiago daramatza artearen eta ilustrazioaren munduan Antonio Ladrillo bezala lanean. Irakasle bezala, liburu objektu eta ilustrazio liburuaren inguruan ibilbide independente ezberdinak garatu ditu. *This way, that way* honetan, oinarriko kolore eta formekin jolas egitera gonbidatzen gaitu. Forma horiek, kolore jakin bat, begi pare bat eta irribarrea besterik ez dute. Bada, horrekin eta batera hitzik gabe, istorio zoragarriak sortzen dira. Orrialdeek toleste-lerroak dituzte eta horiek jarraituz, pertsonaien arteko harremanak deskubritzen joan gaitzke.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Azal tolesgarriak dituen eta hitzik ez duen objektu liburu koloretsua da. Orriak pasa ahala, era askotara toles daitezkeen orrialdeak edo ertzak topatuko ditugu. Horiek aldatzean, tolestean edo mugitzean, kolore, forma eta aurpegitxo zeibere berriak deskubrituko ditugu. Liburu objektua izanik, liburu bera ere alde batera zein bestera alda, mugi eta toles genezake. Mugimendu horiekin guztiekin, interakzioak sortuko dira kolore, forma eta aurpegitxo horien guztien artean.



HASERREA
Idazlea: Iñigo Astiz
Ilustratzailea: Leire salaberria
Ikaselar, 2020
ISBN: 9788417538989
40 orrialde
Album ilustratua

Tituluak adierazten duen bezala, haserrea da album honen gaia, emozio bat, beste edozeinen modukoa, baina baduena berezitasun bat: haserrea norberarengan hasten den arren, ez da hor amaitzen, zabaldu egiten da gehienetan ingurukoak ziprztinduz. Astizek eta Salaberriak ez dute sentimendua aletzera jo; istorio bat asmatu dute eta horrekin haserrearen hainbat alderdi iradoki, besteak beste, askatzailea eta zapaltzailea. Izan ere, liburu honetan haserre dagoen ume batek bere sentimendu hori inurri batzuen gainera botatzen edo askatzen du, horiek haserretzeraino eta ordainetan beraiek protagonistaren gainera egiteraino. Azkenean denak haserretzen diren arren, umore eta naturaltasun handiko kontakizun bizia da.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora kontatzeko, eta, bereziki, haurren eskuetan uzteko albuma. *Kuku!* Bildumako gainerako liburuarekin bezala, emozioaz hitz egiteko tartea zabaltzen du: Haserrea. Baina horrez gain, solasaldi literario batean album honetako ahots narratiboak ezagutzeko aukera eman daiteke (Nortzuk hitz egiten dute? Nola dakigu? Nolakoak dira?). Irudiei erreparatzea garrantzitsua izango da. Azalari jarraiki, plateran fruituekin jolastuz aurpegiera ezberdinak irudika ditzakegu.



AMETS GAIZTO NIRE ARMAIRUAN
Egilea: Mercer Mayer
Itzultzailea: Koldo Izagirre
Pamiela-Kalandraka, 2020
ISBN: 9788491721703
36 orrialde
Album ilustratua

Amets gaiztoen beldur den mutikoa da album ilustratu honetako protagonista. Haurrengan hain ohiko diren gaueko beldurrei buruz eta horiei aurre egiteaz dihardu Mercer Mayerrek. Lan hau 1968an argitaratu zen lehen aldiz, eta 2001ean ekarri zuen euskarara Pamiela-Kalandrakak. 2020an, berrargitaratu egin dute eta gehiagotan ere egin beharko dute ziurrenik, gai honek ez baitu iraungitze datarik eta gutxi baitira beldurraren sentimendua liburu honek bezain argi erakutsi eta hain ongi biribiltzen duenik. Albuma denez, esan gabe doa testuak (laburra) dioena osatu eta girotu egiten dutela ilustrazioek, izua, haserrea, adorea eta lasaitasuna horien bidez bakarrik irakur baititzakegu.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Mercer Mayer erreferentziatzeko autorearen da eta bere lana ilustrazioengatik nabarmentzen da, ezinbestekoa izango litzateke bere liburuak gelan ikustea eta irakurtzea. Liburu honi dagokionez, amets gaiztoen inguruan eta gaueko beldurrez hitz egiteko tartea har dezakegu. Gure amets gaiztoen irudiak asma ditzakegu eta margotu.



MARI TXIKI SUPERMERKATUAN

Idazlea: Pello Añorga
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Denonartean, 2020
ISBN: 9788417940348
32 orrialde
Album ilustratua

Pello Añorgak hitz gutxitan eta Jokin Mitxelenak ohiko trazo askeaz, eta beste hainbatetan baino lodiagoaz, osatu dute liburu hau. Bi guraso eta haur bat larunbateko erosketak egitera joan dira supermerkatuara. Astero bezala, umeak ikusten duen guztia harrapatu nahi du eta gurasoen pazientzia amaitzerainoko indarrez eskatzen du. Liburuen gunean baino ez dira baretuko guztiak. Aldarte onean eta kantari irtengo dira azkenean.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora kontatzeko eta kantatzeko albuma da, baita ondoren ikasleen eskuetan uztekoa ere. Irakurketaren aldeko apologia egiten duenez, aukera bikaina sortzen da ikasle bakoitzak haren liburu kuttunena gelara ekartzeko, besteei azaldu edota kontatzeko. Hala, bakoitzaren irakurle irudia eraiki eta interesak ezagutuko ditugu. Era berean, konstelazio literarioak eraikiz, Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaren bibliografia gelaratu daiteke.



BISITA

Egilea: Antje Damm
Itzultzailea: Naroa Zubillaga
Txalaparta, 2020
ISBN: 9788418252327
40 orrialde
Album ilustratua

Bakardadeaz eta horrek maiz eragiten duen beldurraz, edo beldurraz eta horrek eragiten duen bakardadeaz dihardu album honek. Bakarrik eta beldurrez beterik bizi da protagonista, tristura iradokitzen duen zuri-beltzeko irudien bidez ikus dezakegu hori. Baina egun batetik bestera gauzak aldatu egingo dira, etxera sartzen uzten duen haur batek lagunduko du horretan. Bat-batean tristura eta beldur guztiak gainditzen lagunduko dioten oroitzapenak biziberrituko ditu eta segurtasuna hartu ahala kolorez beteko da guztia. Irudiek hartzen dute leku gehien istorio honetan. Antje Damm-ek paperezko edo kartoizko antzokitxo bat sortu zuen horretarako. Bertan sortzen ditu eszena guztiak. Hori dela eta, badirudi irudiek 3 dimentsio dituztela.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Antje Damm ilustratzailearen lana ezagutzeko parada eskaintzen digu. Nor den? Zein den bere ilustratzeko era, liburu honetan zein teknika erabili duen azter dezakegu eta gelan probatu collagea hiru dimentsiotan sortzen. Haurrek galdutako paperezko hegazkinaren kopia bat egin dezakegu, edota paperezko hegazkinen lantegia, papiroflexiaren munduan sartuz.



NIRE GORPUTZEAN BIZI NAIZ

Idazlea: Juan Kruz Igerabide


Ilustratzailea: Ainara Azpiazu

Ikaslarak, 2020

ISBN: 9788417538958

32 orrialde

Poesia - asmakizunak - aho korapiloak



ZIRIMIRIA

Idazlea: Alex Filiatreau eta Nerea Marquez

Ilustratzailea: Nerea Marquez

Anti eta Cuscusian's, 2020

ISBN: 978849407523

100 orrialde

Dibulgazio liburua

Gure gorputza jolasean ezagutzeko eta ikusteko aukera polita eskaintzen du liburu ilustratu honek. Igerabidek sortutako igarkizunak, asmakizunak eta olerkiak biltzen ditu, guztiak gorputzari lotutakoak. Eta horiek ilustratu ditu Azpiazuk kolore, forma eta testura desberdinekin jolastuz. Ilustrazioek testuari erantzunez, asmakizunetako gakoak ematen dituzte.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Gorputz-adierazpenaren bitartez jolasteko poemak dira gehienak, beraz, irudimena eta gorputzeko atal ezberdinak erabiliz kontatu edo kantatu poemak eta jolastu asmakizunak asmatzera irudien laguntzaz. Gorputza erabiltzeko pistak topa daitezke liburuko irudietan. Aukera bikaina gorputz eta mugimenduen kontzientzia hartzeko eta gorputz atalak lantzeko.

Euriari konnotazio negatiboak eranstean ari garen garaiotan, ezin aproposagoa da liburu objektu hau. Euriak (zirimiritik hasi eta ekaitz elektrikoetaraino) gozatzeko 41 ideia zoro biltzen ditu liburuak: katuska-jaurtiketa, euri-dastaketa, zirimiri-kafea... Liburuarekin berarekin ere esperimenta dezakegu, izan ere, harri-paperez egina dago eta urak ez dio kalterik eragiten. Euriak gozatzeko eta fenomeno meteorologiko horri buruzko bitxikeria gehiago jakiteko aukera paregabea da Nerea Marquezek eta Alex Filiatreuk liburu honekin eskaintzen digutena.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Dibulgazio liburuen artean aktibidario moduan sailkatzen da hau, euriarekin jarduera, praktika eta jolas desberdinak egitea proposatzen baitu. Ilustrazioek prozesu mentalen aktibazioan ezinbesteko garrantzia hartuko dute, baita formatuak eta paperaren kalitateak ere, busti ahal izango dugulako!! Liburu honekin helduen eta haurren arteko jakintza partekatzearen beharra asetuko dugu. Klin klan klin kan!



3 IPUIN AMAIEZIN
 Idazlea: Consuelo Digon
 Ilustratzailea: Cintia Martín
 Itzultzailea: Ane Gebara
 Ediciones Tralarí, 2020
 ISBN: 9788494880193
 Jolas liburua - Pop up

Gure eskuetan, hatzen mugimenduekin, magia eginez bezala, zabaldu eta ezkututzen dira liburu objektu hauen orrialdeak. Paper-jolasak eta istorio bixiak batzen dira hiru ipuin hauetan, haurren lilura pizteko eta literaturaz gozatzeko beste aukera paregabe bat dugu eskuarteetan. Hiru ipuin biltzen ditu sorta honek. Bakoitza modu batera zabaltzen eta tolestean da, amaierarik ez duen istorio bana kontatuz, bukatzearen toles egin eta berriro abian jarriko baita ipuina. Ediciones Tralarí argitaletxeak lehen aldiz ekarri du euskarara bere ipuin-sorta bat eta benetan eskertzekoa da, euskarazko liburu objektuak esku bakarreko hatzekin kontatzea baititzakegu oraindik.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Tolesgarriak diren hiru liburu objektu dira. Tolesgarriak izanik, artefaktu bakoitza era batera edo bestera tolestuz eta mugituz gero, bertan aurkitzen diren istorioak aldatu egiten dira. Horrela, liburu bakoitzean istorio labur, baina, amaiezinak aurkitu daitezke. Hortaz, irakurleak liburua manipulatu eta harekin jolas dezake istorio berriak deskubrituz eta irakurritz.



LORERIK GORRIENA
 Idazlea: Itziar Otegi
 Ilustratzailea: Sandra Garayo
 Pamiela, 2020
 ISBN: 9788491721987
 36 orrialde
 Album ilustratua

Irakurtzen hasi orduko ipuin klasiko bat gogoraraziko digu album ilustratu honek, amonaren etxera joateko basoa zeharkatzean ezbehar bat izan zuen neskatoren istorioa baitu oinarrian. Baina kontakizun hura aldatu, egokitu edo gaurkotu beharrean, beste bat sortu dute Itziar Otegi eta Sandra Garayoak. Izuan kateatutako familia batean, senideetako batek beldurraren karga horrekin bizitzen jarraitu edo hori gainditu eta denak hortik askatzea erabaki beharko du. Kolore gorria, basoa, loreak, otsoa... Txanogorritxoren alabaren istorioa izan daiteke. Ilustrazioek indar handia dute: neurri kolore eta trazu gutxirekin esanahiz bete ditu Garayoak. Albumak 2020ko Etxepare Saria eskuratu zuen eta epaimahaiak azpimarratu zuen bezala, “sinbolismo eta sujerentzia handiz” kontatzen da dena.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora elkarrekin irakurtzeko eta ondoren haien eskuetan uzteko albuma. Tertulia literario batean album honetako testu-artearen erreferentzia literarioetan jarri daiteke arreta: Txanogorritxo ipuin tradizionalan (Zeintzuk dira erreferentziak? Aldaketak?...). Horri jarraiki, konstelazio literario bat osatuz, Txanogorritxo ipuinean oinarritzen diren liburuak gelaratu ditzakegu. Solasaldian, liburuan koloreekin egiten den jolasari ere erreparatu.



RAVELen BOLEROA

Idazlea: José Antonio Abad Varela

Ilustratzailea: Federico Delicado

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Pamiela-Kalandraka, 2020

ISBN: 9788491721949

42 orrialde

Album ilustratua

Boleroa da Maurice Ravel konpositore ziburutarraren obrarik ospetsuena, munduan gehien interpretatu den lanetako bat. 1928an sortu zuen Ida Rubinstein dantzariarentzat. Oso originala da, behin eta berriz errepikatzen den melodia izanik, *in crescendo* doa amaieran lehertu egiten den arte. Hain zuzen, horixe irudikatzen du album ilustratu eder honek. Protagonistak, musikariak, animalia humanizatuak dira, mehatxupearan dauden espezietaoak, hain justu. Musika tresnen hotsekin batera hasten dira agertzen eta obra *in crescendo* doan heinean, geroz eta ikusle (humano) gehiago erakartzen dute, adin guztietakoak. Guztien artean ospatzen dute obraren lehertzerainoko amaiera eder hori: pozik, zoriontsu, elkarren beharraz ohartuko balira bezala, espezie guztien arteko lotura ospatzen ariko balira legez.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Maurice Ravelen Boleroa bera entzutearekin batera irakurri beharreko albuma da. Liburuaren amaieran boleroa entzuteko hainbat lotura daude. Ondoren, adierazpen artistikoa eta sormena lantzeko tartea har daiteke: musika tresnak erabiliz istorioko animaliei soinua ipini; animaliei ahotsa, ibilera eta izaera eraiki gorputz adierazpenaren bitartez, boleroaren tenpoa, erritmoa, melodiak errepikatu; musikograma egin...



EUSKAL HERRIETAKO LAMINEN IPUINAK

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Denonartean, 2020


ISBN: 9788417940362

68 orrialde

Narrazio liburua - Ipuin liburua

Euskal Herrietako ipuinen bilduman laugarren liburua argitaratu du Denonartean argitaletxeak, edizio oso zainduan. Honetan, laminen istorioak bildu ditu Juan Kruz Igerabidek, izaki mitologiko horien bost ipuin, zer ziren eta gure arbasoek haiei buruz zer kontatzen zuten pentsaraziko digutenak. Ahozko tradiziotik hartu eta gaur egungo hizkerara ekarriz egokitu ditu, galbaherik ia pasatu gabe. Izan ere, Igerabidek berak esan izana duen moduan, istorio hauek ahoz aho kontatzearen poderioz fintzen eta hobetzen joan dira mendeetan zehar eta ez dute zer hobetu handirik. Bildumako beste liburuetan bezala, honetan ere Elena Odriozola izan da laminen inguruko iruditeria horri forma eman diona. Haien gardentasuna iradokiz, ipuin bakoitzaren aurretik paper begetalezko orrietan marra beltz finez marraztu ditu laminak eta pasarte jakinen irudiak: biribiltasunik gabeko marra geometrikoak pertsonak irudikatzen eta kurbatsuaogak laminen kasuan.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Laminak zer diren azaltzeko saiakera egin dezakegu. Laminen zerrenda fantastikoa sor dezakegu eta gure gelan zintzilikatu. Elena Odriozolak liburua ilustratzeko erabili duen teknikaz baliatuz paper begetalaren gainean margotu ezkeru, zer gertatzen dan ikusiko dugu, eta bata bestearen gainean jarritz. Gero, azpian kartulina beltza jartzen badugu zer? Linterna magikoaren teknika erabiliz, arrakasta handiko lantegia egingo dugu, laminen iruditegia elikatuz.



ISTORIOEN ZOOA
Idazlea: Gianni Rodari
Ilustratzailea: Maite Mutuberrria
Itzultzailea: Uxoia Iñurrieta
A fin de cuentos, 2020
ISBN: 9788412091434
56 orrialde
Narrazioa liburua - Ipuin liburua

Gianni Rodariren lanak ezinbesteko bihurtzen dira berrargitaratu ahala. Bada, hau ere ez da salbuespena. 2020an, Rodariren jaiotzaren 40. urteurrenarekin batera, argitaratu zuen euskaraz A Fin de Cuentos argitaletxe bilbotarrak, Maite Mutuberrria nafarraren ilustrazio ederrekin. Zoo batean kontatzen diren istorioak biltzen ditu album honek. Mino eta Ricardo mutikoak azken honen araba nagusiarekin joan dira zoorra eta berriz joatea erabakitzen dute, baina gauez, zeinen ausartak diren erakusteko. Orduan deskubrituko dute zooko animaliak hitz egiteko gai direla eta haien istorioak entzuteko aukera izango dute. Narrazio arinak dira, laburrak eta elkarrizketaz beteak. Rodariren ipuinetan ohi bezala, hauetan ere ez da gizakiari egindako kritikarik falta.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora irakurtzeko liburua duzue hau, aukera ezin hobea emango dizue solasaldi literarioa dinamizatzeko, gizakiaren miseriez eta itxaropenez mintzatzen da liburua, eta Rodarik nahi zuen moduan ekintzara pasatzeko zein irtenbide ditugun hausnartzeko tartea har dezakegu. Gure arrazonamendu, erabaki eta gogoetekin, fanzine bat sor dezakegu eskolan banatzeko.



BURNIZKO POTOA
Idazlea: Antton Kazabon
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Denonartean, 2020
ISBN: 9788417940331
72 orrialde
Komikia

Artikutzan, meatzeak zeuden gaurkoa baino lehenagoko garaietan kokatzen da istorio hau. Tira-biraren baten ostean, baserri batera hiltzorian iritsi den gizonaren misterioa da komikiaren ardatza. Baserriko amak medikuaren bila bidaliko du semea Artikutzako trenean Oiartzunera. Joan-etorri horretan bizitakoak ditu hipzide komikiak, zauritutako gizonak lepoan duen burnizko potoaren misterioa tarteko. Anton Mendizabal dokumentalistak Artikutzako trenari buruz egindako lanean oinarritu dira Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena istorio hau sortzean. Mendizabalek 2017an Artikutzako tren zaharrari buruzko liburu bat argitaratu zuen Oiartzungo Udalarekin elkarlanean, eta lan horren jarraipena da komikia.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Komikiaren mundura hurbiltzeko ezin hobea duzue liburu hau, testua argia da eta irudiak ere erraz irakurtzen dira. Irakurketaren ostean solasaldi filosofikoa egin dezakegu. Zuek lagunduko zenikete bidelapurren bati? Ondo al dago gaiztakeriatan ibili den norbait laguntzea? Inoiz gertatu zaizue halakorik? Zer egingo zenukete kalean norbait lapurretan ikusi ezkerero?



UXIO

Egilea: Martin Romero
Itzultzailea: Bego Montorio
Astiberri, 2020
ISBN: 9788417575694
64 orrialde
Komikia

Komikira gerturatzeko aukera ininteresgarria eskaintzen du Astiberri argitaletxearen Txikiberri sailak. Bertan argitaratu dute Martin Romeroren lan hau, Haur-komikiaren Castela 2019 saria eskuratu zuena. Sarreran, Uxiok berak, protagonista ilegorriak, bere gorabeherak ezagutzera gonbidatzen gaitu. Istorio guztiak bi orrialdekoak dira, di-da hasi eta bukatzen diren horietakoak, laburrak baina burutsuak eta biziak, umore kolpe eraginkorrekoak. Umore zuria, konotazio ezkorrik eta isekarik gabekoa, da Uxio mutiko irudimentsuaren ahotan jarri duena egile galiziarrak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Komiki txiki hau inspirazio iturri izan daiteke gure komikia sortzen hasteko, banakako lanean edo taldeka, komikigintzan murgiltzeko kanpoko baliabide bat erabil dezakegu, komikilari bat gonbidatuz eta berekin batera komiki bat sortuz. Bestetik, burura etortzen zaigu *Calvin eta Hobbes*-en abenturak izeneko komiki-banda, aukera polita izan daiteke, klasiko bihurtu den komiki hori ezagutzeko.

<https://youtu.be/KckYcuiKAN8>



1880TIK IREKIA

Egilea: Pietro Gottuso
Pamiela-Kalandraka, 2020
ISBN: 9788491722014
32 orrialde
Album ilustratua

Album mutu edo hitzik gabeko honek ilustrazioen bidez hitz egiten digu, historia azaltzen digu, liburu-denda baten eta bere nagusien istorioa kontatzearekin batera. Urteen joanarekin, liburu-dendaren eta bere jabetza duen familiaren nahiz inguru osoaren bilaera ikus daiteke: arropetan, teknologian, gertaeretan, artean (liburu-dendaren ondoan arte galeria bat ikus baitaiteke zenbait urtez). Europan koka daiteke, 1880a izan daiteke abiapuntua, autorik ez zen garaia, lehen autoak sortu zirenekoa, 1918ko pandemia, mundu gerrak, ondorengo aldaketak, XX. mende erdialdea... gaur eguneraino iritsi arteko historia. Hori guztia, etxaurrean ikus daitekeen Kronos-en begiradapean gertatzen da, bera da itxuraz aldatzen ez den gauza bakarra. Baina adi ikusiz gero, bere begirada ere denboraren eta gertakarien poderioz aldatu egiten dela ikus daiteke. Album Irudidunen Nazioarteko XIII. Compostela Saria irabazi zuen lan honek.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Erakusteko eta esku artean denbora tarte luzez edukitzeko album mutua. Denbora da liburu honetako protagonista, hortaz, garrantzitsua da ilustrazioak "irakurtzen" denboratxo bat hartzea, irakurketa bakoitzean ezaugarri, hausnarketa eta bitxikeria gehiagoz jabetzeko. Bestalde, historiako gertakariak eta aldaketak kokatu eta lantzeko aukera eskaintzen du kronologia moduko bat eratuz. Eta alderdi literariotik, orrien artean agertzen diren pertsonaien istorioak eraikitzea ere aukera interesgarria izan daiteke.



OILASKO HEGALAK
Idazlea: Eider Rodriguez
Ilustratzailea: Arrate Rodriguez
Erein, 2020
ISBN: 9788491095873
40 orrialde
Album ilustratua

Igandero oilaskoa bazkaltzen duen familia (normatibo) baten istorioa da. Oilaskoa mahaira atera orduko bakoitzak bere zatiak hartzeko ohitura du, beti berberak, beti arrapaladan. Ama, sobran geratzen diren oilasko hegalekin geratzen da. Behin, ondoezik sentituko da eta pixkanaka ohartuko da bizkarrean hegalak ari zaizkiola hazten. Hurrengo igandean oilaskoa labean sartu orduko hegan alde egingo du leihotik. Munduan batetik bestera ibiliko da txoko desberdinetako jakiak dastatuz. Bere bidaian ipar-poloraino heldu zenean, ordea, amak ezaguna zitzaion usain goxo bat sumatu zuen. Hari jarraituz etxeraino itzuli zen, handik baitzetorren mahaian zegoen oilaskoaren usain gozoa. Ez zen betikoa, ezta etxeakoak ere. Bera ere ez, horregatik garbi adierazi zuen zer nahi zuen, zer nahi zuen oilasko hartatik.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Elkarrekin zein bakarka irakurtzeko albuma. Ondoren, tertulia literario batean, istorioan barrena topatuko ditugun errekurso literario eta ikonografikoei erreparatu: metaforak, sinbologia, koloreak... *Nola banatu oilasko bat?* Galderatik abiatuta, album honen tripetan hausnartzen jartzeko aukera izango dugu. Federico Delicadoren *Ikaro* albuma ere gelaratu daiteke eta konstelazio literario bati hasiera eman (liburuak erlazionatzen joan).



ATA PANK ETA ATE PUNKY
Idazlea: Bernardo Atxaga
Ilustratzailea: Mikel Valverde
Pamiela, 2020
ISBN: 9788491722045
64 orrialde
Narrazio liburua

Liburuaren tituluan, alegia, protagonisten izenetan iradokitzen den bezala, punky samarrak dira Bernardo Atxagak eta Mikel Valverdek sortu dituzten bi ahateak. Punky, bihurri edo “gaixto” izan nahi duten bi “gizajo” dira. Ingurukoak zirikatzea dibertigarri egiten zaie, baina nekez lortzen dute nahi bezain punky izatera iristea. Mikel Valverderen ilustrazioetan irakur dezakegu bi sasi-punky hauen izaera ahula, oso adierazkorrak baitira aurpegiko espresioetan. Liburu ilustratu honek kontatzen duen lehen istorioan, adibidez, zoologikoko lehoiari iseka egin nahi diote. Erronka handirako gandorrek tente jartzera joango dira ileapaindegira eta euren asmoa kontatuta denek atzetik segiko diete zooraino. Lortuko al dute hain harro diotena? Kuriosoa da; bi protagonistak baino ez dira humanizatutako animaliak liburu honetan. Ez da Atxagak eta Valverdek animalia humanizatuak sortzen dituzten lehen aldia (*Banbulo*, *Xola...*). Umorea, ironia, kritika... Irribarre bihurria eragingo diguten istorio xelebreak sortu dituzte orain ere.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Irakasleek boz gora edo hurrek bakarka erraz eta arin irakur dezakete. Ondoren, bi proposamen: bata, tertulia literario batean, bereziki pertsonaiak lantzea (animalia humanizatuak, animalien iruditeria, metafora eta sinbologia...); bestea, pertsonaiak ezagututa, haien hurrengo istorioa asmatzea. Bestalde, Bernardo Atxagaren *Banbulo* edo *Xola* txakurraren bilduma klasikoak ere gogora ditzakegu.



EZ APURATU
 Idazlea: Inazio Mujika Iraola
 Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga
 Erein, 2020
 ISBN: 9788491096283
 40 orrialde
 Narrazio liburua

Neska baten eta bere amonaren arteko harremana kontatzen da liburu honetan; gerturatu nahi duten bi belaunaldiren artekoa. Amona burua galtzen hasi da eta egoera zeblebreak gerroz eta gehiago gertatzen zaizkie. Kafetxo bat hartzera ateratzen diren batean, beren bidean baina norbait jakina ikustera doazen jendetzarekin egiten dute topo, eta norabidea aldatuta jendetzaren kontrako bidea hartzea erabakitzen dute. Bi belaunaldiren arteko arrakala iradokitzen du egileak istorio honen bidez. Hori, batez ere, hizkuntzaren bilakaeraren bidez lortzen du.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburua boz goran irakurri eta gero Annes Dägo pertsonaia benetakoa den jakiteko gogoia sartuko zaigu, funanbulistek zer egiten duten jakiteko grinaz batera, tarte polit bat har dezakegu haien inguruan arakatzeko. Bestetik, bai idazlearen bai ilustratzailearen obra ezagutzeko aukera aprobeitza dezakegu, Maite Gurrutxagaren kasuan anitzak eta ugariak dira bere lanak, eta liburuen konstelazio bat egin dezakegu, bere obra aztertuz.




GAU BELTZA
 Idazlea: Josu Ozaita
 Ilustratzailea: Joseba Larretxe
 Txalaparta, 2020
 ISBN: 9788418252259
 80 orrialde
 Narrazio liburua

Euskal Herriko ohitura bat berpizten laguntzeko helburuz sortutako istorioa da hau. Hildakoen eguna edo Gau Beltza garai batean egiten zen moduan erakusteko eta berreskuratzeko deia irakur daiteke ipuin honen atzean. Hain zuzen, Gau Beltzaren inguruko antropologia liburua idatzi zuen Ozaitak Jaime Altunarekin batera duela bizpahiru urte: *Itzalitako kalabazen berpiztea* (UEU, 2018). Eta lan hartatik eratorritakoa da haur eta gazteen artean modan jarri den *Haloween*-a ospatzeko gure aldaera berreskuratzeko ahalegina.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Gau Beltza, *Halloween*. Nondik dator ohitura hori? Arbasoek ere ospatzen zuten? Zelan egiten zuten? Mozorrotzea disfrazatzea da? galdera asko irekitzen dira gai horren inguruan, lan antropologikoa zer den eta zelan egin ikas dezakegu gai hau aitzakiatzat hartuta.



ZAKARRUKO
Idazlea: Anjel Lertxundi
Ilustratzailea: Antton Olariaga
Erein, 2020
ISBN: 9788491094913
48 orrialde
Narrazio liburua




GALTZAUNDI, GALTZAMOTZ ETA GALTZAJARIO
Idazlea: Antton Kazabon
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Erein, 2020
ISBN: 9788491095941
72 orrialde
Narrazio laburra

Anjel Lertxundik, gaur egun heldu batenarekin identifika dezakegun narratzailearen ahotsean, haurtzaroko gora beheretara garamatza istorio honekin. Zehazki, hurrek, batez ere, kozkortzen hasiak direnean, kideetako bat (ahuldaderen bat erakusten duena) azpian hartzeko eta isekaz josteko joera horretara. Hala kontatzen du istorio honetan ere: nola mutiko bati “zakarruko” deitzen hasi ziren eta betirako izena eta izaera markatuta utzi zizkioten. Metafikzioa egiten du, gainera, kontakizunean haurtzaroan egindako hura oroitzen baitu hausnarketa eginez, eta bere buruari erreferentzia eginez; bere akatsa onartuz. Hala ere, jazarpenaren salaketa zuzen eta gordinerantz jo beharrean, bizitzako pasarte gisa kontatzen du gertakaria, horrelako istorioetan gertatu ohi den moduan, errealitatea eta fikzioa nahastuz, errealitatea puztuz batzuetan edo egoera surrealista eraginez.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Irakasleak boz gora edo hurrek bakarka irakur dezakete, ikasleen irakurketa-esperezia mailaren arabera. Ondoren tertulia literario bat egin eta liburu honetako fikzioa eta errealitatearen arteko harremana landu daiteke (metafikzioa, zientzia fikzioa...). Edo errekurso literario batera jo: hiperbolea. Hiperbole edo gehiegikeria handi bat izan daitezkeen istorioak sortzera jolastu, liburuko protagonistak *Zakarrukoren* egi/gezurrekin egiten duen bezala.

Gorputzaren aldaketen aurrean hartzen ditugun jarrerak nahasten dira istorio honetan. Galtzaundik handi izan nahi du, Galtzamotzek txiki eta Galtzajario ez da oraindik gauza horiekin arduratzen. Nahiak, beldurrak eta beste hainbat sentimendu nahastu ohi dira aldaketen garaian. Hiru neska-mutilen arteko harremanean sortu den kezari konponbidea jartzen saiatuko dira. Besteren lekuan jartzen ere ahaleginduko dira. Gaiaz mintzatzeko puntua bota digu Kazabonek ipuin honetan. Mitxelenak bere trazu fin eta azkarrak ilustratu ditu hiru kideak, erraz asma daiteke bakoitzaren aldartea, oso espresiboak baitira. Umore ukitu handiz marraztu ditu.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Bakarka irakurtzeko moduko narrazio labur aparta. Istorio honetan, pertsonaiek eta haien ezaugarriek markatzen dutenez ekintza narratiboa, solasaldi literario batean haiei buruz egin daiteke lanketa: Zein da zuen pertsonaia gustokoena? Zergatik? Zer dute ezberdina beraien artean? Non antzeman duzue hori? Azkenik, anima gaitezke hiru pertsonaia xeble horien beste istorio bat asmatzera.



BUILDING STORIES
Egilea: Chris Ware
Pantheon Books, 2012
ISBN: 9780375424335
260 orrialde
Jolas liburua

Building Stories Chris Ware ilustratzaile estatubatuarren eleberri grafikoa da, 2012koa. Hamalau lan inprimatu biltzen dituen kutxa batean dator guztia. Tituluak iradokitzen duen moduan (eraikinetako istorioak edo istorioak eraikitzen) kontakizun nagusia hainbat eraikinetan garatzen da, protagonistaren bizilekuan, baina istorioa bera eraikitzeko aukerak hain dira irekiak, ezen irakurraldi bakoitzean desberdin eraikitzeko aukera ematen baitu. Obraren zatiak edozein ordenatan irakur daitezke; egileak nahita ez ditu zenbakiz ordenatu. Ordena kronologiko posible bat izatekotan, istorio guztiak irakurri ostean har dezake, batez ere, protagonistaren bizitzako uneen arabera, baina hori ere ez da erabat kronologikoki josten. Lau lerrotan deskribatu ezin den lan honetan nabarmentzekoa da, bestalde, generoari dagokionez, komikiak hartu dituen forma guztiak edo ia guztiak biltzen direla obra honen zati desberdinetan, eta aurreiritzirik gabe konbinatzen dituela egileak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: *Building Stories* Chris Ware karikaturista estatubatuarren eleberri grafikoa da. Lan ez-konbentzionala, kutxa batean paketatutako hamalau lan inprimatuk osatzen baitute: liburuak, egunkariak, kalkulu-orriak eta boltereta-liburuak. Lan-zatiak edozein ordenatan irakur daitezke, irakurketa-arau eta ordena konbentzionaletatik kanpo. Jolasteko, kopiaitzeko, berrasmatzeko liburu objektua da.



BABEL
Egilea: Arnoud Wierstra
Editions Palette, 2017
ISBN: 9782358322348
44 orrialde
Album ilustratua

Babelgo dorrera garamatza hitzik gabeko album ilustratu honek. Hain zuzen, Pieter Bruegel Zaharrak irudikatutako koadroa. Jakina da Babelgo dorrearen kondairak (Bibliako *Genesi* liburuan) munduko hizkuntzen aniztasuna azaltzen duela, baina zigortutako harrokeriaren eredutzat ere hartzen zen eta hori islatu nahi izan zuen Bruegel-ek bere margolanean. Arnoud Wierstrar-en kontakizunean, Babelgo biztanleak paradisu-raino iritsiko den dorretzarra eraikitzen ari dira. Baina zientzilari exzentriko bat, bere ametsa betetzeko hegal pare bat egiten ari da, eta haiek jantzita Brueghel-en koadroan sartuko da, dorrearen gainetik egin nahi baitu hegan. Irakurlea ere, Babel herritik dorre ospetsu-raino egiten duen pertsonaia honen ibilbideari jarraituz sartuko da istorioan. Bi koloretan eta xehetasun handiz dago dena ilustratuta, baina Erdiko plegura iritsi eta Bruegelen koadroa koloretan agertzen da. Hitzik gabeko albumekin gertatu ohi den bezala, irakurketa asko izan ditzake obra honek. Egileak berak esan izan du gure izaerak oinarritzeko egia bat duela: "Gizakiak esploratu egin behar du", eta irakurgai honek esploraziora garamatza.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Bakarka irakurri eta ikasgelan lantzeko eleberri grafikoa. Hitzik ez izateak aukera eskaintzen digu guk geuk istorioa hitzez eraikitzeko, interpretazio irekiagoak egiteko, testuz osatzeko... Ilustrazioak landuz ere aukera dugu XVI, mendeko Pieter Brueghel eta gainerako margolari holandarren lanetara gerturatu eta artearen historian sartzeko.



BASOLATIK BERRI ONIK EZ
Gidoigilea: Asisko Urmeneta
Ilustratzailea: Joseba Larretxe
Ikastolen elkartea, 2020
ISBN: 9788412223835
64 orrialde
Komikia

Asisko Urmenetak idatzi eta Joseba Larretxek ilustratutako komiki-liburua da hau, Historian atzera XVII. menderaino egin araziko diguna, Orbaizetako (Nafarroa) arma-olaraino. Lantegiaren kokalekua (mendian) eta nola amaitu zuen ikusteak fikziorako aukera handia eman die bi sortzaileei. Kondairak eta historia bera pizgarri izan badituzte ere, fantasiatzko unibertso bat sortu eta beste amaiera bat eman diote historia hari. Pertsonen gain, izaki fantastikoak ere gehitu dizkiote istorioari: Orkaitzak. Afera soziala eta generoarena ere txertatu dituzte. Kolore ilunak hautatu ditu Larretxek: beltz, gorri, grisak. Hasiara eta bukaera ditu kapitulu bakoitzak, eta berezitasun bat ere badute guztiak: denetan hiltzen da pertsonaiaren bat.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ezinbesteko komiki hau komiki-zaleentzako aproposa da. Bitartekaritza lan bat eskatzen du komiki-zaleak ez direnentzako, horretarako duda barik boz gora irakurtzeko gonbita egiten dizuegu, eta denen artean itzultzen joatea darabilen hizkuntza berezia. Taldean irakurketari triapak ateratzea oso interesgarria izango litzateke, komikigintza beste irakurle mota batzuetara ailegatzeko. Bestetik, Youtuben aurki dezakegu artista bien liburuaren aurkezpena, benetan merezi du entzutea zelan egiten duten sormen-lana.



TANTAKA
Idazlea: Peru Magdalena
Balea Zuria, 2020
ISBN: 9788412105148
105 orrialde
Poesia

Oso liburu berezia da Peru Magdalenak sortu duen hau: haikuak bildu ditu eskuko telefono baten neurriko (10 cm x 6,5 cm) liburu batean. Orriak banan banan eraz daitezke, oparitzeko, aparte gordetzeko, enmarkatzeko, liburua bera irakurri ahala desegiteko... Azal guztiak ezberdin egin dituzte: izokin kolore baten gainean tantakatze bat egin zuten pinturarekin eta, hala, azalean ageri diren tanta denak ezberdin gelditu dira. Lehen haikuak ere (*Plak plak plak/ biguntzen da tantaka/ harri gogorra*) tantak aipatzen ditu, hain zuzen, horregatik eman diote Tantaka izena, horregatik eta haikua tanta batekin parekatzen duelako egileak berak. Tantzot betetako liburu berezia da, hortaz.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Haiku liburu honen bitartez, poesia genero horretara hurbil gaitzke eta poesia lantegi bat egin; 5, 7, 5 arauarekin itzelezko haikuak eginez, edo lerro bat aldatuz zelan aldatzen diren ikusiz. Mozteko orriak dituen liburuxka honekin altxorraren bila jolas gaitzke, haiku bat irakurri eta atzeko pistak altxorrera eramango gaitu. Haiku bakoitza marraztu, argazki bat egin... Oparitxoak egin orritxoekin, eskolan ezkutatu, liburuetan, hormetan, ekintza poetikoak egin.



ARRASTOA

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Alai, 2020

ISBN: 9788412094435

96 orrialde

Narrazio liburua

Espainiako Gerra Zibilaren aurreko uneetara eramango gaitu istorio honek. Hilketan bat argitzera Lekunberrira bidaliko duten detektibea da protagonista. Abiapunetak nobela poliziako baten aurrean gaudela iradokitzen duen arren, kontakizun honen helburua misterioa argitzea baino gehiago da gerra lehertzearen garai hartako giroan eta herriko alguazilaren bizitzan sakontzea, Justinorenean, hain zuzen. Haren haurtzaroa eta bizitza kontatzen dizkigu Igerabidek; nolakoa zen bizimodua garai hartan, herriko maisuaren papera, gaztelarekin zuten harremana, zenbat lan egin behar izaten zuten aurrera egiteko... Lan interesgarria da gerra aurreko giroa eta gizartea ezagutzeko

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Intriga eta akzio duen istorio hau 36ko Gerra Zibilaren atarian kokatuta dago, guardia zibilaren detektibe bat bidali dute Lekunberrira hilketan bat ikertzera. Boz goran zein bakarka irakurtzeko liburu proposa da, baina boz gora partekatzerakoan irakurketa kolektiboaren esperientzia bizi ahal izango dugu, eta, intriga eta misterioa denon artean partekatu, benetan sentituz irakurketa istorioei buruz hitz egiten dugunean egiten dela.



BITXANTXANGORRI HARITZ ADARREAN

Idazlea: Yolanda Larreategui

Ilustratzailea: Malen Amenabar

Erein, 2020

ISBN: 9788491096412

44 orrialde

Album ilustratua

Bi gai nagusitzen dira narrazio honetan. Biak hala biak gure gizartean oraindik tabu direnak: hilik bezala bizitzearen zentzua eta hortik ateratzeko aukera (eutanasia), heriotza, azken batean. Promesa batetik sortzen den maitasun istorio bat kontatzen da hemen, promesa betetzeko garaia heltzen den unean, hain zuzen. Adinean gora doan emakume nagusi bat da protagonista eta baso batean dabil, leku misteriozkoa, beldurgarria zenbaitetan edo bakea eman dizagukeen lekua. Ilustrazioek kontakizunak berak duen sosegua iradokitzen dute, lasaitasuna, bai espresioetan baita erabili dituen koloreetan ere. Testuak esaten ez dituen hainbat xehetasun ere irakur daitezke horietan.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora kontatzeko edo bakarka irakurtzeko albuma. Ondoren, tertulia literario batean, bereziki istorio honetako metafora literario eta bisualak landu daitezke (hostoak, txoriak...), baita bien arteko harremana ere (testua-irudia). Guzti hau arakatzeko istorioa eraikitzen eta interpretatzen lagunduko digu, literatura eta artea egiten, finean. Zaurtzarora, dependentzia, alzheimerra, minbizia, eutanasia, suizidioa... zer diogu horren inguruan? Gaia jorratzen duten zein beste fikziozko istorio ezagutzen dugu?



TXOKOLATEGIA
Idazlea: Yolanda Arrieta
Denonartean, 2020
ISBN: 9788417940300
220 orrialde
Narrazio liburua

Zergatik ez da ageri txokolate-maistrarik Historian? Galdera horri tiraka, sortu du Yolanda Arrietak *Txokolategia* izeneko nobela hau. Dona eta Lili nerabeak dira protagonistak, txokolategile familia bateko hirugarren belaunaldiko bi neskato. Gurasoek erretiroa hartzarekin batera jasoko dute Txokolategia, ez, ordea, txokolate-maisu izendapena, hori gizonei bakarrik baitagokio. Edo hala izan da orain arte behintzat. Abiapuntu horrekin osatu du Arrietak eleberri fantastiko hau. Bertan, historia, merkataritza, mitologia, emakumeen ikuspegia, errealitatea, ametsak... gai horiek guztiak ukitu ditu egileak. Denboran eta espazioan bidaiatzeko aukera emango digu Arrietak. XIX. mendetik hasita, zeharka agertuko dira XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen erdialdea, XXI. mendean amaitzeraino.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Eleberri honetan bidaiak daude, espazioan eta denboran; egiazko pertsonaiak eta fantastikoak; kakaoaren jatorriari eta txokolatearen ekoizpenari buruzko azalpen jakingarriak; errealitatea eta ametsa; mitologia; historia; rola... Bakoiatzak sentitzen duen eran bizitzeko daukan eskubideaz dihardu kontakizunak. Bere baitan beste galdera asko biltzen dituen honako hau da Lanaren muina: Zergatik ez da ageri txokolate-maistrarik historian? Topatuko ditugu? Arrietaren aurreko liburuari (*Ataria*) egiten dio erreferentzia, noiz eta nola?



**ABERE BA: PALÍNDROMO
ILUSTRATUEN PIZTEGIA**
Testua eta ilustrazioak: Bigara
(Itziar Aranburu / Jon Ander Garcia)
Pamiela, 2020
ISBN: 9788491721673
224 orrialde
Dibulgazio liburua

Hizkuntzarekin jolas egiteko eta euskararen aberastasunaz gozatzeko liburu-hiztegi-piztegi-palindromo irudiduna da hau, bakarra bere eremuan. 101 abereri buruzko azalpenak emango dizkigu, baina ez hori bakarrik: palindromo bat, *piztegi* bat, hizkuntzarekin jolas egiteko irudidun hiztegi bat. Hiztegi itxura duen arren, *piztegia* edo bestiariuma da, hitzak eta piztiak elkartzen ditu. Baina era berean, abezedario moduan ere funtzionatzen du pizti bakoitzaren formetan aurki baititzakegu hizkiak; letra bakoitzean ezkutatuta bizi dira azeriak, kilkerrak, kaimanak, igelak...


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: *Aberre ba* hitzekin jolas egiteko liburua da. Palindromo hitzaren esanahia ulertzeko ezin hobea. Hortik abitura, palindromo berriak asma ditzakegu. Palindromoaz gain, abereen itxuran oinarritua dagoen abezedario eta piztiarioa ere bada, hizki bakoitzean animalia bat agertzen baita eta animalia bakoitzean hizki bat. Papera, artaziak eta rotulkiak hartuta, gureak asmatuko ditugu?



PEQUEÑO DICCIONARIO SENTIMENTAL: 57 PALABRAS PARA EMPEZAR A AMAR EL EUSKARA
Idazleak: Leticia eta Regina Salcedo
Ilustratzailea: Liébana Goñi
Pamiela, 2020
ISBN: 9788491721574
128 orrialde
Dibulgazio liburua

Gaztelaniaz idatzitako liburua den arren, euskara du ardatz eta motibo. Euskarara gerturatzeko, hizkuntzarekiko jakin-mina pizteko eta berau maitatzen hasteko moduan aurkeztu dute gure hizkuntza, argi utziz, zertzelada goxo batzuk nahikoa izan daitezkeela horretarako. A-tik Z-tarainoko hainbat hitz hautatu dituzte egileek: *Ahizpa, Bihotz, Derrigorrez, Lagun, Ortze, Saguzar...* Ezkerreko orrian hitz bakoitzaren ilustrazioa egin du Liébana Goñi ilustratzaileak, eta eskuinean, Leticia eta Regina Salcedok emandako azalpena dator. Baina liburua ez da Z hizkian amaitzen, hortik aurrera euskal kulturako hainbat lagunek beren hitz kuttunak idatzi dituzte. Hor daude, besteak beste, Leire Salaberriarren *Ama*, Dani Martirenaren *Apurra*, Ana Jakaraen *Min*, Bernardo Atxagaren *Mira* eta Reyes Lintxetaren *Zokobetaillu*.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Hitzen jatorria, esanahia era poetikoan azaltzen duen liburua dugu hau, posible izango litzateke hitz desberdinen aurkezpenak egitea, edo aukeratutako hitza gehiago arakatzea. Hitzen antropologoak bihur gaitzke.



ANTZARA EGUNA
Gidoigilea: Harkaitz Cano
Ilustratzailea: Adur Larrea
Txalaparta, 2019
ISBN: 9788417065904
136 orrialde
Komikia

Santi Brouard mediku eta politikari bizkaitarraren azken egunak kontatu dituzte eleberri grafiko honetan Harkaitz Canok eta Adur Larreak. 1984ko azaroaren 20an, Espainiako Segurtasun idazkariaren aginduz, Santi Brouard tiroz hil zuten bere pediatria kontsultan. Brouarden heriotzak zirrara handia eragin zuen Euskal Herrian. Komikira zuri-beltzean ekarri dutena thriller bat den arren, Brouard-en izaera edo alderdi humanoena nabarmendu nahi izan dute bi sortzaileek. Kontakizuna maila eta garai desberdinetan garatzen da, trama bat baino gehiago ditu baina gero hari nagusiari lotzen zaizkio.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Brouard-en hilketaz gain, haren konpromiso politikoa eta bere bizitza pertsonaleko zenbait eszena ezezagun azaldu dituzte bi autoreek eleberri grafiko honetan. Ildo horri jarraituz, detektibe bihur gaitzke eta momentu horretako egoera politikoa eta soziala aztertu. Harkaitz Canoren lana ezagutzeko tartea har dezakegu.



BEGIAK ZERUMUGAN
 Idazlea: Miren Agur Meabe
 Ilustratzailea: Ane Pikaza
 Elkar, 2020
 ISBN: 9788490279724
 90 orrialde
 Poesia

Begiak zerumugarantz jarriz gero, modu askotara bidaia dezakegu. Oinak lurrian, hegoak astinduz hegan, irudimenaren bidez... Poesiak ere horretara eramaten gaitu sarri. Liburu ilustratu eder honetan Miren Agur Meaberen poesiak geure baitarako edo hausnarketara jotzeko bide-orri bat eskaintzen digu. Testua lau ataletan banatzen da, eta testua josten duen haria iluntasunetik argira doan ibiltariaren-narratzailearen ahotsa da, sentimenduen geografiaren esploratzailea. Olerkiek kontzeptu abstraktuei buruzko 48 aforismo osatzen dituzte (askatasuna, loa, denbora), beste objektu batzuekin batera (itsasargia, pospoloa, giltza). Ane Pikazak, zerumugaranzko mapa marraztu du atalez atal. Liburuaren amaieran erantsi duten orri zabalgarri batean ikus daiteke “mapa” edo zerumugarako bide hori oso-osorik.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora edota bakarka irakur daitekeen poema liburua. Iluntasunetik argira doan bidaia bisual eta literarioa interpretatzeko tertuliak antolatu daitezke: Nola irudikatzen da bidaia hitzez eta irudiz? Zein bidaia kontatzen duela uste duzue? Zein poema gustatu zaizue gehien eta zergatik? Ondoren, sormenezko jolasak aktiba daitezke: poemei musika jarri, poemak narrazio bilakatu, poemak irudi eszeniko bilakatu...



PORTUAK
 Idazlea: Oihana Arana Gaumin, 2020
 ISBN: 9788494660283
 90 orrialde
 Narrazio liburua

Portuak diren leku fisiko horietatik haratago joan da Oihana Arana bere lehen eleberrian. Ilargi izeneko neska nerabea da protagonista. Nerabezaroko galderei erantzunak bilatuz, edo galdera guztien erantzunak beste galdera batean hasten direla ikasiz, estereotipoak hautsiz eta zalantza guztiei aurre eginez egin beharko du heldutasuneranzko transizio hori. Aitona Matiasek kutsatutako portuekiko obsesioaren eragina nabarmena da kontakizunean. Nerabezaroaren itsaso zabaletik heldutasunaren porturanzko bidea marrazten du eleberri honek, tartean, bestelako hainbat “portu” ere badela iradokiz.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Bakarka irakurtzeko primerako eleberria. Ondoren, solasaldi literarioan, nagusiki agertzen diren gaiez, hitz-jokoez edota protagonistaren bilakaeraz hitz egin daiteke. Era berean, idazleak planteatzen duen jolas metaforikoari jarraiki, honakoa erantzunez martxan jar dezakegu geure irudimena: Zer dira portuak zuretzat?



FRANKENSTEIN EFEKTUA
 Idazlea: Elia Barceló
 Itzultzailea: Miren Agur Meabe
 Edebé, 2020
 ISBN: 9788483785348
 320 orrialde
 Narrazio liburua

Nora eta Max dira liburu honetako protagonista nagusiak. Bi nerabe, hiri bakarra (Ingolstadt), bi garai, eta omenaldi bat; eleberrri hau Elia Barcelók, Mary Shelley-ri (*Frankenstein*en egilea) egindako omenaldi literarioa da. Barcelók denboraren ate bat sortu du, handik iritsi da Max XXI. mendeko Ingolstadt-era, eta bertan ezagutu du medikuntza ikasten ari den Nora. Ate beretik, Maxi segika, iritsi da Nora XVIII. mendeko Ingolstadt-era, Frankenstein Doktorea bizitza birsortzeko esperimentuak egiten ari den leku eta garaira. Orduko janzkera, ohitura eta arauetara egokitu beharko du, Max lagunari arazoa konpontzen laguntzeko. Denboran egindako jauzi horrekin, Barcelók Shelley-ri eskerrak emateko modua aurkitu du; eskerrak emakumeei fantasiatzeko generoari ateak irekitzeagatik eta, aldi berean, garai hartako emakumea mugitzen ari zen testuingurua erakusteagatik.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasleek bakarka edo boz gora ikasgelan kapituluka irakurtzeko modukoa. Liburuko erreferentzia literarioak eta kulturalak lantzeko paregabea: *Frankenstein* edo *Prometeo modernoa* liburua, *Prometeo* eta *Pandoraren mitoa*, James Whale edo Danny Boyleren filmak... Era berean, Mary Shelley-ren bizitza eta obrak gelaratu daitezke eta beldurrezko eleberria landu (ezaugarriak, tonua...).



NAFARROAKO MARISKALA
 Idazlea: Aitzol Lasa
 Denonartean, 2020
 ISBN: 9788417940263
 96 orrialde
 Narrazio liburua

Aitzol Lasa matematikariak teknologia gai hartuta harilkatu du bere azken liburua. *Usategiaren printzipioan* matematika eta misterioa hartu zituen ardatz, *Hodeietan* amodioa eta zientzia, eta, oraingo honetan, teknologia eta boterea. Nafarroako erresuma distopiko batean kokatzen da istorioa, teknologiak erabat kontrolatzen duen inguru batean. Kontrolatuta eta beldurrez bizi den gizartea irudikatu du. Gaztelarekin aurreko mende luzeetan izandako gatazkak gaindituta eta mugak ongi zehaztuta ditu Nafarroak. Erresuma modernitatean sartu da eta Nafarroako Mariskalaren zaintzapean bizi dira herritarrek, nagusitasun teknologikoaren bitartez erabateko agintea ezartzen duen mariskalaren kontrolpean. Istorio labur eta bizi da honakoa; distopia gehienek bezala, zer pentsa eman diezagukeena.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Boz gora ikasgelan kapituluka edota bakarka erraz irakur daitekeen eleberria. Tertulia literario batean, bereziki gaiak eskain dezake mamia. Teknologia eta boterearen arteko harremanaz dihardu; filosofia, teknologia edota gizarte eta historia ikasgaietan eztabaidatzeko moduko gaia. Ondoren, zientzia-fikzioa eta distopia generoa landu daitezke, adibide gehiago gelaratzuz (telesailak, filmak, liburuak, abestiak...). Zer da distopia?



DUMITRU BILUZIK!
Idazlea: Koldo Izagirre
Erein, 2020
ISBN: 9788491095958
104 orrialde
Narrazio liburua - Bilduma

Koldo Izagirrek 2014an argitaratu zuen *Dumitru*, behar ez zuen lekuan egoteak gaizkile bihurtarazi zuen nerabearen istorioa. Bigarren honetan, haren egunerokoan murgiltzeko aukera emango digu egileak. Dumitruen diarioa irakurriz, bere kezak, ezinegonak, abandonuen minak, haserreak, maiteminak... ezagutzeko modua izango dugu. Oso pertsonaia sinesgarria sortu du, galdera asko planteatuko dizkiona irakurleari berari ere. Pertsonaiaren barrura sartuz eta ikertuz, lehen pertsonan idatzi du gehiena Izagirrek, Dumitruen egunerokoan ari baita. Baina Olatzi -diarioa idaztera bultzatu duenari- zuzentzen zaion zatietan, bigarren pertsonara joko du, poesia sortzera ere ausartuz. Esan gabe doa, oso hiztegi aberats eta anitza duela eleberri honek.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasgelan irakasleak, atalka, boz gora irakurtzeko eleberri aproposa. Puzzle moduan eraiki beharreko eleberria da, pertsonaiak eta gertaerak ez direlako era simple eta ordenatuan agertuko. Hortaz, egitura narratiboa ezagutzeko puzzlea osa daiteke ikasgelan: hasierako pieza (Nork hitz egiten du? Nori?); barruko piezak (Noruntz doa? Zer lortu nahi du?); amaierakoak (Non eta nola amaitzen da?). Izan daitezela galdera irekiak, norberak ulertu duenaren arabera deskubritzeko norbere eleberriko egitura.



PANPINA
Idazlea: Erika Olaizola / Kamikaz kolektiboa
Susa, 2020
ISBN: 9788417051525
112 orrialde
Antzerkia

Erika Olaizolak sortu eta 2019ko udazkenean estreinatu zen *Panpina* antzezlan. Susa argitaletxeak ekarri du liburura, *Ganbila* bilduman, hauxe da sail horretako zazpigarren lana. Oso antzezan interesgarria da, mahai gainean jartzen duen gaia hausnarketarako eta eztabaidarako giltza izan baitaiteke. Pertsona vs. panpina dikotomia planteatzen da lan honetan. Noiz bihurtzen da norbera panpina eguneroko bizitzan? Zer gertatzen da panpina baten buruan? Noiz begiratu behar digute eta zergatik? Emakume oro panpina bat da? Besteen begiradak panpina egiten gaitu?

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Hainbat eratarik landu daiteke liburua edota antzezlan bera. Batetik, antzezlan ikusi (zuzenean edo online) eta ondoren liburuko gainerako testuak, irudiak eta hausnarketak irakur daitezke obra bera sakonago ezagutzeko eta “panpina” kontzeptuaz mintzatzeko. Bestetik, liburuko pasarteak eta sormen prozesuko materialak ezagututa, ikasleek euren “panpina” sor dezakete: plastikoki, idatziz, irudiz edo antzezan eran. *Ganbila* bilduman egungo euskal antzerkia ezagutzeko liburu gehiago topa ditzakegu.



HIDDEN FOLKS (+3 urte)
Garatzailea eta argitaratzailea:
Adriaan de Jongh, 2017

<https://hiddenfolks.com>

Bilaketa jolasa da Adriaan de Jongh joko-diseintzaileak *Hidden folks* app-arekin proposatzen duena. Bereak dira *Bounden* (binaka balleta dantzatzeko app-a) eta *Fingle* joko esperimentalak ere. Miniaturazko zuri beltzeko paisaietan ezkutatutako objektu eta pertsonak bilatzea da gakoa. Kanpatzeko dendak ireki, zuhaixkak moztu, kolpe bakarreko ateak ireki... Eskuz marraztutako irudiak dira, oso diseinu xehea du, umore ukitu handikoa. Ahoz sortutako 1.400 soinu-efektu baino gehiago ditu, eta horiek objektuaren gertutasunari buruzko pistak eman ditzakete. 20 maila eskaintzen ditu eta 190 objektu baino gehiago bilatzeko aukera. 22 hizkuntzara dago itzulia.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Paisaia interaktibo amaiezinetan barneratuta, ezkutaturiko objektu edota pertsonaiak topatu beharko ditugu pantailan. Gure zeregina izango da gortinak zabaltzea, sastrakak moztea, ateak zartatzea edo krokodiloari ahoa irekitzea pantailan barrena. Ezkutatutako horren bila abiatuko den abenturazalea bilakatu nahi? Ondoren, pantailan barrena bizitutako abentura horiekin istorio bat sortzeko aukera ere aprobeitza daiteke ikasgelan, ziur ikasle bakoitzak istorio ezberdin bat kontatuko duela pantaila beraren aurrean egonda ere.

https://www.youtube.com/watch?v=kYw_tw__7ow



FEED THE HEAD (+4 urte)
Garatzailea eta argitaletxea:
Vectorpark, 2007

<https://vectorpark.com/iOS/>

Feed The Head (Elikatu burua) retro estiloko abentura joko zoro bat da. *Point and click* edo ukituz eta klik eginez jolasten da. Vectorpark-ek garatu zuen 2007an eta ez du gaurkotasunik galdu. 4 urtetik gorakoentzat aproposa da, erritmoz eta irudi aldetik xehea baita. Vectorpark etxeak, azken urteotan, estilo bereko app interesgarriak sortu ditu, besteak beste, alfabetoan oinarritzen den *Metamorphabet (2015)*, hori ere modu berdinsuan jokatzen den alfabeto interaktiboa.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Pantailan agertzen den giza burua ukituz, sudurra mugituz, ezpainak aldatuz... harekin harremanetan jarrita, guztiz esanguratsuak, fantastikoak eta surrealistikak diren gertaera edo eszenak topatuko ditugu. Buru honen irudimenak ez du amaierarik eta horrek parte-hartzailearen irudimena aktibatuko du. Haratago joan nahi izanez gero, sortzen diren gertakari eta eszena horiek guztiak abiapuntu bat izan daitezke geure istorio propioak sortzeko. Hemen ikusi daiteke nola jolasten den:

<https://www.youtube.com/watch?v=f8vUnArRFAo>




CHUCHEL (+7 urte)
Garatzailea eta argitaletxea:
Amanita Design, 2018

<https://amanita-design.net/games/chuchel.html>

Abentura jolas komikoa da Amanita Design-ek sortu duen hau, lehendik zituzten *Machinarium*, *Botanicula* eta *Samorosten* ostean. Pertsonaia iletsu, biribil eta bigun antzekoa sortu dute, Chuchel. *Point and click* moduko jolasa da. Bere aurkaria den Kekelek eskuratu nahi duen gerezzi preziatua lortu nahi du Chuchelek, horretarako bidean hainbat puzzle eta erronka gainditu beharko ditu. Maila bakoitza aurrekoaren desberdina da, ez dago segida lineal logikorik jokoaren unibertsoa bera ilogikoa baita. Ganberro hutsa da eta arauak aldatzen ditu jokalariai barre egiteko, baina era berean besteok ere barre egingo diogu Chuchel gaixoari. Izan ere, ez dago Chuchelek zapalduta, zatituta edo airera jaurtita amaituko ez duen mailarik, badu 'Tom eta Jerry' marrazki bizidunetako haur-indarkeria kutsurik.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Chuchel abentura grafiko bateko protagonista bitxia da. Irakurle/jokalaria Chucheli lagundu beharko dio honek desio duen gerezia lortzen, baina horretarako Kekel etsaia garaitu beharko dute erronka, jolas eta puzzle ezberdinak osatuz. Umorea, absurdoa eta dibertsioa dira abentura honetako osagai garrantzitsuenak. Hemen ikusi daiteke nola jolasten den:

<https://www.youtube.com/watch?v=Ttg6TuGkkTI>



ATOPIA RPG (+14)
Sortzaileak:
Etzi Portu Maritimoa taldea
Argitaletxea: Farmazia Beltza,
2019

<https://atopia.eus>



GOROGOIA (+14)
Garatzailea: Jason Roberts
Argitaletxea: Annapurna Games, 2016

<http://gorogoa.com>

Euskaraz sortutako eta merkaturatutako lehen rol-jokoa da *Atopia RPG* (*Atopia Role Playing Game*), eta hau jokoan hasi aurretik azalpen eta rol guztiak deskribatzen dituen liburu zoragarria, edizio oso zaindukoa eta kolaborazio andana izan duena. Jokoari dagokionez, pertsona batek gidari edo zuzendariaren papera hartu behar du (*Maizterra* deitzen zaio horri). Beste jokalariek pertsonaia bana interpretatuko dute: lehendakari, banku-lapur, kazetari, yoga-irakasle, epe luzeko langabetu, ortzinauta, espeleologo, txikitero edo beste edozer; irudimena da muga. Maizterrak abiapuntu bat jarriko du eta hortik aurrera istorioa denen artean josiko da; liburuan jasota dauden arauak eta dadoek gidatuta istorioa osatzen joango dira jokalariaik.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Gaur egungo Euskal Herri surrealista batean kokatzen da abiapuntua, eta, bost fakzioren arteko elkarrekintza eta gatazka dira jokoaren motorra. Rol joko izanik, munduaren ezaugarriak zein jokoaren arauak alda daitezke, joko jokalarien gustuetara moldatzeko. Jokalariek pertsonaia batzuen papera hartzen dute eta istorioan zehar gidatuko dituzte, gidari batek (*Maizterrak*) testuingurua garatzen duen bitartean. Rol joko gehienetan bezala, jokoaren baitako ekintzak arrakastaz burutzeko duten gaitasuna pertsonaien ezaugarriek zehazten dute. Taldean jolasteko jolas-liburua edo liburu objektua da, irudimena martxan jarri eta jolasean barneratuz, errealitate fikzionalak eratzeko gailua.

Gorogoa puzzle generoaren bilakaera bat da, Jason Roberts ilustratzaile eta garatzaileak eskuz marraztu, diseinatu eta ilustratutako istorio eder baten bidez kontatua. *Gorogoa*-ren dinamikaren ezaugarria originaltasuna da. Jokalariek, puzzleak ebazteko irudimena erabiliz, antolatu eta konbinatu egin behar dituzten ilustrazio panelak dituzte. Baina *Gorogoa* ez da jolasaren izena bakarrik; izaki mistikoa ere bada, protagonistak espiatzen duena, mutil gazte bat denean. Bizitza osoan, jakin-minak, eta, agian, obsesioak jota egongo da, eta bide luze bati ekingo dio ikusitakoaren misterioak deszifratzeko. Denboran eta espazioan zehar garatzen den bidaia ameslari baterako gonbitea da *Gorogoa*; eleganzia eta konplexutasun handiz sortutako lana.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Hasiera batean istorioak erraza dirudi: mutiko batek 5 fruitu eskuratu behar ditu haien esanahi mistikoa dela eta, eta guk lagundu egin beharko diogu. Baina, jolasean sartu ahala ohartuko gara buruhauste bilakatuko den abentura baten aurrean gaudela. Puzzle itxurako hitzik gabeko ilustrazio-binetak ordenatu edo bateratzea izango da gure zeregina. Hori egitean, istorioak aurrera jarraitu ahal izango du eta fruituak topatzeko gai izango gara.

Trailerra: <https://youtu.be/xtZVYWI7oCY>

Demoa: <https://youtu.be/lqQL0x8SmOA>



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA
Kulturza Paganako Sailburuorditza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejero de Política Lingüística



Galtzagorri
elkartea

